



2012
TXOSTENA
BIZKAIKO GURUTZE
GORRIA

Pertsonengandik gero eta hurbilago



**Bizkaiko Gurutze Gorria
Cruz Roja Bizkaia**

XEDEA

"Ahulengandik gero eta hurbilago egotea, nazio eta nazioarteko esparruan, gehien bat boluntarioek burututako prebentzio, laguntza, birgaitze eta garapen ekintzen bidez".

IKUSPEGIA

"Gurutze Gorriak, gizartean errotuta dagoen eta boluntarioritza bultzatzen duen gizalde erakunde den heinean, garapenerako irtenbide osoak eskainiko dizkie hondamendi eta larrialdietako biktimei eta baita gizarte-, osasun- eta ingurumen-arazoak dituztenei ere".

Tokiko/Eskualdeko 11 Batzar: Nerbioiko Harana (944 263 730), **Ezkerraldea** (944 936 560), **Durungaldea** (946 309 323), **Mungia** (946 741 226), **Enkarterri** (946 670 584 - 946 107 008), **Arratiako Harana** (946 736 262), **Uribealdea** (944 609 295 - 944 642 215), **Bermeo** (946 883 616), **Lea-Artibai** (946 831 929), **Gernika** (946 251 988) **eta Bilbo** (944 103 984 - 944 163 183).





Javier Zarraga Castro
Probintzia presidentea



Bizkaiko Gurutze Gorria
Cruz Roja Bizkaia

Lagun agurgarriok,

Beste urte batez, zuengana jo nahi dugu txosten honen bitartez, non Bizkaiko Erakunde honen parte diren eta bertan parte hartzen duten pertsona guztien lana biltzen baiten.

Krisi ekonomikoak markatutako ekitaldia izan da eta gero eta nabariagoa da krisi hori gure inguruan, batez ere, egoera zaurgarrian dauden familia eta pertsonen artean. Aipatutako krisiaren ondorioak arintzeko asmoz, Gurutze Gorriak maiatzaren 8an deitutako Batzorde Nazionalean adostu zuen **“Orain, inoiz baina +”** deialdia abiaraztea, lurralde-sareko 300.000 pertsonak artatzeko helburuarekin. Deialdi hori Bizkaira eraman zen eta ekainaren 28ko Probintzia Batzordean 170.000 euroko aurrekontu partida berezia onartu zen; partida hori funts propioetatik atera zen, eta 5.000 pertsona artatzea zuen helburutzat. Ildo horretan egiten dute lan gure boluntarioek eta kontratatu ditugun ekipoek, eta pixoihal, jarraipen-esne eta potoez osatutako hainbat kit edo sorta banatu izan dituzte, etxerik gabeko pertsonak artatu, enplegu planak sustatu eta proiektu ezberdinak bideratu dituzte, hala nola, hizkuntza-bikoteak edo arrakastarako eskola.

Gainera, ohiko lana mantendu egin da gainerako esparruetan: osasuna, sorospenak eta larrialdiak, prestakuntza, Gurutze Gorria Gazteria, ingurumena eta boluntarioria.

Txosten hau baliatu nahi dugu egiten duguna ebaluatzeko, baina baita bizkaitar guztiek gure lanaren gaineko iritzia eman eta kritiko jarduteko ere, gure atak ireki eta euren iradokizunak eta egoera hobetzeko ideiak eman ditzaten.

Beste urte batez, gure eskerrik beroenak lan hau ahalbidetu duten guztiei (boluntarioak, langileak, bazkideak, babesle eta emaleak, herri-administrazioa) eta Gurutze Gorrian konfiantza jarri duten guztiei, laguntzen uzteagatik eta gure leloari, **“Pertsonengandik gero eta hurbilago”**, leial izaten uzteagatik.

Berrito ere nire eskerrik beronak emanez agurtzen zaituztet. Zuen esanetara gaude behar duzueneko.

ZER EGITEN DUGU?

- Osasun, sorospen eta larrialdi plana **4**
- Gizarte bazterkeria eta enplegu plana **6**
- Prestakuntza eta L.H.ko Zentroa **10**
- Ingurumen plana **12**
- Gurutze Gorriko Gazteria **14**
- Nazioarteko lankidetzak **15**
- Beste proiektu batzuk **16**

NORK EGITEN DU?

- Boluntarioria, langileak, partaidetza eta tokiko garapena **18**

NOLA EGITEN DUGU?

- Balibideak **21**
- Hurbiltasun metodologia **22**
- Orain inoiz baino + deialdia **22**
- Komunikazioa eta irudia **23**

NOLA FINANTZATZEN DA?

- Bazkideak **24**

BIZKAIKO GURUTZE GORRIA ZIFRATAN

- Kudeaketa ekonomikoa **25**
- Jarduera datuak **28**

KALITATE ETA INGURUMEN ZIURTAGIRIAK

32

OSASUN, SOROSPEN ETA LARRIALDI PLANA

Honako Plan hau Gurutze Gorriaren eta Ilargi Erdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduaren historian sustraituenetako bat da, baita herritarrek gehien balioetsi eta aintzatesten duten ekintzetako bat ere. Helburu bikoitza dauka: batetik, osasunaren esparrua eta, bestetik, larrialdiak.

- **Osasuna:** bizitzeko ohitura eta estilo osasuntsuak sustatzea, eta zirkulazio, etxeko nahiz aisialdiko istripuak saihestu ditzaketen jarrerak eta ekintzak sustatzea herritarren artean eta, bereziki, zaugarritasun egoeran dauden edota arrisku handiagoa izan dezaketen kolektiboen artean.
- **Esku-hartzea Sorospen eta Larrialdietan:** bere helburua da erantzun azkarra eta egokia ematea larrialdi edo krisi egoeran dauden biktimen beharrei. Batez ere, herritarrei dago zuzenduta oro har, baina arreta berezia ematen zaie pertsona zaugarrienei. Lehen sorospenak lekuan bertan egiten dira eta, hala badagokio, ospitalera eramaten da biktima.

LARRIALDIETAKO OSASUN GARRAIO SAREA - LOGS

LOGS Eusko Jaurlaritzarekin adostutako zerbitzu kontratazioaren bitartez garatzen da. Bizkaian, hurrengo modu honetan dago banaturik:

ESKUALDE BATZARRAK	LOGSen KOKALEKUA
Bermeo	Bermeo
Durango	Zornotza
Enkarterriak	Zalla Karrantza
Mungia	Mungia Plentzia Bakio
Uribealdea	Leioa
Nerbio ibarra	Basauri
Ezkerraldea	Portugalete
Lea Artibai	Ondarroa
Gernika	Gernika Lekeitio

ZER EGITEN DUGU?

LEHORREKO ETA ITSASOKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Artatzeko eskari zehatz bati erantzuteko eta, oro har, aurreikus daitekeen arriskua dagoen ekintza edo leku batean gizarte eta osasun arreta eskaintzeko baliabideak beharrezkoak dituen ekintza oro hartzen dute zerbitzu horiek, betiere, aldiz aurretiko plangintza eta antolakuntza baten ondoren.

- **Kulturalak:** erakusketak, jardunaldiak, topaketak, herriko festak...
- **Kiroletakoak:** ftubola, saskibaloia, rallyak, piraguismoa, bela, txirrindularitza...
- **Bestelakoak:** kontzertuak, prozesioak, erromeriak, erakusketak, emanaldiak...



ITSAS-SALBAMENDUA

Itsas-salbamenduko programa Arriluze, Bermeo eta Ondarroako baseetatik gauzatzen da, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri-lan Sailarekin eta Estatuko Itsas Salbamendu eta Segurtasun (SASEMAR) Sozietatearekin batera, eta uretan giza-bizitzen segurtasuna bermatzea du helburu. Bere egiteko nagusien artean arriskuan dauden pertsonak zein ontziak bilatzea, salbatzea eta erreskatatzea daude.

LARRIALDIETAN BEREHALA ERANTZUTEKO EKIPOAK – LBEE:

LBEEek erantzuteko modua dira eta beharrezkoak diren ekintzen nahiz ekintza egokien bidez biktimen



beharrei erantzuteko diseinaturik daude. Erantzun espezializatua ematea dute helburu, eta herritarrek boluntario gisa parte hartzeko aukera eskaintzen dute ekipoek.

- Lehorreko bilaketa eta salbamendua.
- Uretako bilaketa eta salbamendua.
- Biktimen asistentzia eta sailkapena.
- Behin-behineko ostatua.

LAGUNTZA, SALBAMENDU ETA SOROSPEN ZERBITZUA BIZKAIKO HONDARTZETAN

Bizkaiko Lurralde Historikoan hogeita sei hondartza daude. Jende ugari hurbiltzen da hondartzetara uda partean, eta, ondorioz, uretako nahiz lehorreko edozein motatako larrialdiak gerta daitezkeen aisialdi-guneak dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak Gurutze Gorriak kudeatzen duen salbamendu eta sorospen zerbitzua sustatzen du eta zerbitzu horren helburua da arrisku egoerak prebenitu eta modu onean ebaztea. Modu horretan, hareatza hauetara eta ingurura hurbiltzen diren erabiltzaileen segurtasuna kolokan jartzen duten egoerak behar bezala egonkortzeko sistema ezartzen da, hain zuzen ere, oinarriko hiru zutaberen bitartez: prebentzioa, erreskatea eta lehen sorospenak.

- LA ARENAko hondartza (Muskiz-Zierbena).
- ZIERBENAko PORTUko hondartza.
- AREETAko hondartza (Getxo).

- EREGAko hondartza (Getxo).
- ARRIGUNAGAko hondartza (Getxo).
- GORRONDATXEko hondartza (Getxo).
- BARINATXEko hondartza (Sopela).
- ARRIETARA-ATXABIRIBILEko hondartza (Sopela).
- BARRIKAko hondartza (Barrika).
- MURIOLAKo hondartza (Barrika).
- PLENTZIAko hondartza (Plentzia).
- GORLIZko hondartza (Gorliz).
- ASTONDOko hondartza (Gorliz).
- ARMINTZAko hondartza (Lemoiz).
- BAKIOko hondartza (Bakio).
- ARITXATXUko hondartza (Bermeo).
- LAIDATXUko hondartza (Mundaka).
- TOÑAKo hondartza (Sukarrieta).
- SAN ANTONIOko hondartza (Sukarrieta).
- LAIDAKo hondartza (Ibarrangelu).
- LAGAko hondartza (Ibarrangelu).
- EAKo hondartza (Ea).
- OGELLAko hondartza (Ispaster).
- ISUNTZAko hondartza (Lekeitio).
- KARRASPIOko hondartza (Mendexa).
- ARRIGORRIko hondartza (Ondarroa).

OSASUN POSTU AURRERATUAK – OPA

Osasun postu aurreratuak aldi baterako laguntzarako azpiegitura desmuntagarria dira, eta bizitza euskarri aurreratuak neurriak ezartzeko beharrezkoak diren langile eta materialez horniturik daude.

Materiala:

- Denda desmuntagarria.
- Garraiorako ibilgailu 1.

- 8 ohe.
- Tiradera-altzari bi, sendaketak egiteko materialarekin.
- Mantak.
- Multzo elektrogenoa.
- Mahaia furgonetan.
- 3 aulki.
- Sorgailua.
- Garraiorako esku-oheak.
- Argiztapena.
- Garbiketarako materiala.

	ZERBITZUAK	ARTATUTAKO PERTSONAK
Larrialdietarako Osasun Garraioa	11.356	10.512
Lehorreko Prebentzio Zerbitzuak	1.172	1.732
Itsas Salbamendua Larrialdiak	143	18
Itsas Salbamendua Atoiak	69	
Uretako Prebentzio Zerbitzuak	106	36
GUZTIRA	12.846	12.298

GIZARTE BAZTERKERIA ETA ENPLEGU PLANA

ESKU-HARTZEA PERTSONA NAGUSIEKIN

Pertsona nagusiei zuzenduriko programaren helburu nagusia da pertsona nagusiek eta talde sozial zaurgarriek euren gaitasunak sustatzea eguneroko bizitzan, euren autonomia pertsonalaren eta taldeko autonomiaren eta euren gizarteratzearen aldeko postura eginez. Parametro horretatik abiaturik, Gurutze Gorriak hausnarketa-puntu izan nahi du, bai orainaldian bai etorkizunean, pertsona nagusiak bere ohiko inguruan, familian eta gizartean integratu eta bertan iraun dezan.

Ildo horretan, Bizkaiko Gurutze Gorriak pertsona nagusiekin gauzatzen duen esku-hartzearen **helburu** nagusiak hurrengoak dira:

- **Pertsona nagusien aintzatespen soziala lortzea, bai eta gizartean partaidetza sozial handiagoa** izatea lortzea ere; horretarako, kolektiboak egun duenaz bestelako irudia ematea oso garrantzitsua da, aldezturik ezarritako aurreiritzi eta kontzeptuak aldatu eta behin betiko deseginez.
- **Ohiko inguruan**, familian edota auzoan irautea sustatzea, instituzionalizazioaren alde egin beharrean, gure programa eta jardueraz baliatuz.

Proiektuak: proiektu hauek beste modu batean ezartzen dira Eskualde Batzarretan edota Bizkaiko lokaletan.

- **Partaidetza sozialaren sustapena:** pertsona nagusien boluntarioritza.
- **Laguntza etxe eta egoitzetan.**
- **Egoitza zentroyen dinamizazioa:** boluntarioz osatutako abesbatzarekin.
- **Pertsona nagusiak eta bere zaintzaileak informatzeko eta aholkatzeko bulegoa:** horretarako Pertsona Nagusien Baliabide Gida gauzatu da (2012ko edizioa eta hurrengo web orria: <http://www.guiaparamayores.org>)
- **Laguntza teknikoak:** laguntzarako produktuen mailegua (aulkiak, ohe artikulatuak, eskorgak...).

- **Estimulazio kognitiboa:** etxez-etxekoa, egoitzetan eta memoria-tailerrak.
- **Animazio soziokulturala:** jarduera soziokulturalak (tai ji, erlaxazioa, eskulanak, xendazaletasuna, alezko apaingarriak, psikomotrizitatea...).
- **LOPE:** GPS bilagailua pertsona nagusientzat.
- **Nagusiak eta teknologia berriak:** sakelako telefonoak eta internet nahiz sare sozialak erabiltzeko tailerrak, pertsona nagusientzat.
- **María Muñoz Etxe Komunitarioa.**



BAZTERKERIA EGOERA DAUDEN PERTSONA ETA FAMILIEI ARRETA

Esparru honetan egindako lanak Bizkaiko Gurutze Gorriak 80ko hamarkadan egindako lanean du jatorria, orain dela 30 urte inguru, izan ere, 1982. urtean ekin zitzaion Etorkinen eta Errefuxiatuen Sailarekin lan egiteari. Azken urteotan, eta krisiaren ondorioz, nabarmen igo da etxerik ez duten pertsonekin eta familiekin egiten den lana, egungo krisi egoerak gogor jo baititu eta, hala, **Gizarteratze Saila** izena hartu du.

Proiektuak: proiektu hauek beste modu batean ezartzen dira Eskualde Batzarretan edota Bizkaiko lokaletan.

- **Harrera, informazioa eta orientazioa:** zaurgarritasun egoera larrian dauden pertsonak, laguntza, etxebizitza... bezalako baliabideen gainera informazioa.
- **Lege-aholkularitza, atzeritartasun auzietan.**
- **Borondatezko itzulera.**
- **Familia berriz elkartzea.**
- **Sentsibilizazioa eta kulturartekotasuna:** gaztelaniazko eskolak eta hizkuntza-bikoteak.



- **Etxerik gabeko pertsonen oinarrizko beharrez arduratzea:** hotzerako arropa, lo-zakuak, higiene kitak eta gaueko irteerak egiten dira, hotz alerta dagoenean.



- **Giza-arreta eta etorkinak hartzea.**
- **Krisiak jotako familiei laguntza banatzea:** jaioberrientzako pixoihalak eta elikadura, etxerako higiene kitak eta nork bere burua garbitzekoak.
- **Eskola arrakastarako proiektuak:** adinez txikikoekin eskola laguntza, beste ikastetxe batzuekin lankidetzan eta eskola materiala bildu eta banatzeko kanpainak ("Carrefourreko Eskolara Itzulera Solidarioa").



ESKU-HARTZEA MINUSBALIOTASUNEN BAT DUTEN PERTSONEKIN

Hurrengoak dira proiektu hau gidatzen duten helburuak: minusbaliotasunen bat duten pertsonen partaidetza edota integrazioa sustatzea egungo gizarte sareetan; minusbaliotasun fisiko maila altuko pertsonen gizarteratze maila areagotzea, aisialdiko jardueretan parte hartu dezaten bultzatuz eta gaur egun jarduera esparru geografikoko minusbaliatuen baliabideak irisgarriago eginez. Azken finean, helburuok garraio publikoa baino erabili ezin dezaketen mugikortasun murriztuko arazoak dituzten pertsonen ahalbidetzen diete hainbat ariketa eta gauzatzeko errazak diren hainbat ataza egitea.

Proiektuak:

- **Garraio egokitua**, mugikortasun murriztua daukaten pertsonen aisialdiko jardueretan parte hartzea, euren etxetik mugitzea, kudeaketak egitea, medikuarenera bisitak egitea eta eguneroko jarduerak egitea ahalbidetzen diena.
- Nerbioi ibarreko, Ezkerraldeko, Uribealdeko, Bermeoko, Durango eta Enkarterrietako Batzarren jarduera esparrua.



HAURTZAROA ETA FAMILIA

Esku-hartze sail honen jomuga nagusia adinez txikikoaren garapen optimoa sustatzea da; horretarako, bere baliabide pertsonalak, familiarrak eta ingurukoak indartuko dira, babesgabetasun edo abandonu egoeretan hura babestu eta gaitzeko,

gizarteratze egokia lortu dezan. Horren jomuga zabal eta anbizio handikoak ahalik eta esku-hartze globalena eta integratzaileena behar du, adinez txikikoaren errealitate pertsonala eta harengandik hurbilen dauden gizarteratze-eragileak ardatz izateko, hau da, bere familia eta garatzen doan komunitatea bera.

Proiektuak:

- **Gizarte eta hezkuntza esku-hartze komunitarioa.** Laneko esparruak: pertsonala, familiarra, osasun-heziketa, eskola-prestakuntza, laneko prestakuntza, aisialdia eta denbora libre, partaidetza eta irakurzaletasuna bultzatzea, eta juridiko administratiboa. Animazio soziokulturala San Frantziskoko auzoko liburutegian (teknologia berriei buruzko tailerrak eta irakurzaletasuna bultzatzeko tailerrak).
- **Proiektua Bilbon ezartzeko batzarra.**

GIZARTE ZAILTASUN EGOERAN DAUDEN EMAKUMEAK

2005az geroztik kudeatzen da Bizkaian **ATENPRO - Genero indarkeriaren biktimenzako telelaguntza mugikorreko proiektua.**

Zerbitzuak barne hartzen dituen prestazioak:

- GPS gelaxka edota GSM triangelatze bidezko alarma deia.
- Urrutiko lokalizazioa.
- Agenda zerbitzua.
- Baliabideen kudeaketa eta aktibazioa.
- Arreta psikosoziala erabiltzaileari, Arreta Zentrotik (24 orduz).
- Balio erantsiko jarduera osagarriak.
- Gurutze Gorriko beste zerbitzu batzuetan sartzea.
- Eremu honetan gaitutako eta espezializatutako langileen jarraipen sozial etengabea.

ATXIKITAKO UDALERRIAK	
Santurtzi	Galdakao
Portugalete	Bilbao
Barakaldo	Enkarterriak
Sestao	Erandio
Basauri	Lekeitio

PRESOAK

NI: NIRE OSASUNAREN ETA INGURUAREN PREBENTZIORAKO ETA ZAINTZARAKO AGENTEA

Proiektu hau kartzelako presoek gaitasun psikologikoak eta osasun gaitasunak eskuratzeko zuten beharrak antzemanda sortu zen, hain zuzen ere, egunero bizi dituzten egoera ezberdinei behar bezala aurre egitea ahalbidetzeko, bai kartzelan bertan nahiz handik irten ondoren. Besteak beste, elikadura ohiturak hobetu, higiegi egokia eskuratu eta nork bere burua zaindu, arrisku jarrerak saihestu eta lehen sorospenak ikas dezaten da asmoa.

Garapen esparrua: Nerbioi ibarreko Eskualde Batzarra- Basauriko kartzela.

Komunitatearen aldeko lanak

Beste urte batez, Gurutze Gorriak, Espetxeetako Gizarte Zerbitzuekin batera, eta 2006an Gurutze Gorriaren eta Espetxeetako Erakundearen artean sinatutako hitzarmenari jarraiki, zigortutako pertsonen zuzenduriko proiektuaren kudeaketan parte hartzen du, komunitatearen aldeko jardunaldi batzuk antolatuz.

Proiektua ezartzeko batzarrak: Ezkerraldea, Nerbioi ibarra, Uribealdea, Mungia, Gernika, Bermeo, Enkarterriak.

OSPITALERATUTAKO GAI XOEI ARRETA

Proiektu honen bitartez, atsedena eman nahi zaie familiei eta, bidez batez, ospitaleratutako pertsonen

laguntzea, euren bakartasun egoera arinduz eta gaixoari sostengu emozionaleko espazioa ahalbidetuz. Zerbitzu honek barne hartzen dituen jarduerak hurrengoak dira:

- Laguntza bai gelan barruan nahiz kanpoan.
- Solastea, erabiltzailearekin solairuan bertan egiten diren jardueretan parte hartzea.
- Garapen eremua: Ezkerraldeko Eskualde Batzarra – Santurtziko San Juan de Dios Ospitalea.

GABONETAKO JOSTAILUEN KANPAINA

Jostailuen Kanpainaren helburua da zailtasun sozioekonomikoak dituzten Ezkerraldeko familien umeei jostailuak banatzea.

Ekimen honen asmoa da jostailu berriak banatzea, belikoak eta sexistak ez diren jostailuak, alegia.

Ezarpn Batzarra: Ezkerraldea.

ENPLEGU PLANA

Bizkaiko Gurutze Gorriko Enplegu Planak langabezia dauen pertsonak laneko merkatura hurbilaztea du helburu. Batez ere, kolektibo zaurgarriekin egiten da lan, bai eta gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonekin ere.

HELBURUAK

- Pertsonen aukerak eta gaitasunak sustatzea, euren enpleguarritasuna areagotuz eta euren laneratze prozesuetan aktibo mantentzen dituzten proiektuak gauzatzuz.
- Zailtasunik handienak dituzten herritarren laneratzea sustatzea, euren gizarteratzea erdiesteko.

ZER EGITEN DUGU?

- Laneko eta gizarte giro inklusiboa sortzen laguntzea, lanean aukera berdintasuna zailtzen duten genero, jatorri edo adin hesiak murriztuz.

JARDUERAK

Neurri espezifikoak enplegua lortzeko

- **Informazio eta aholkularitza** zerbitzua, enplegua bilatzeko.
- Enplegua **bilatzeko espazioak**.
- **Lana egin aurretiko tailerrak**.



Laneratzeko bideak

Orientazio, prestakuntza eta bitartekaritza jarduerak, kolektibo zaurgarriekin.

- **Enplegua lortzeko bide integralak:**
 - Orientazio, prestakuntza, bitartekaritza eta aholkularitza ekintzak, lan bilaketan.
 - Bizkaian bizi eta zaurgarritasun egoeran dauden langabetuei zuzenduta.
- **Zeharkako bideak, enpresan gazteak edukita:**
 - Orientazio, prestakuntza, bitartekaritza eta aholkularitza ekintzak, lan bilaketan.
 - Bizkaian bizi eta zaurgarritasun egoeran dauden 18-30 urte bitarteko gazte langabetuei zuzenduta.




PRESTAKUNTZA ETA L.H.ko ZENTROA



PRESTAKUNTZA SAILAK

PRESTAKUNTZA MOTAK	IKASLE KOPURUA
Esku-hartzea	627
Gizarteratzea (enplegua)	809
Kanpoko eskaintza	4.293
Erakunde-garapena	300
GUZTIRA	6.029



- Esku-hartzea
- Gizarteratzea (enplegua)
- Kanpoko eskaintza
- Erakunde-garapena


KANPOKO ESKAINTZAREN ANALISIA

PRESTAKUNTZA EKINTZA	IKASLEAK
Aisialdi eta denbora libreko dinamizatzailea	19
Gizarte zailtasunak dituzten emakumezkoak	12
Geriatría, azheimerra duten gaixoak eta demenzia duten pertsonekin komunikazioa	54
Doluan laguntzea	14
Gizarte zailtasunak dituzten haur eta gazteak, familiako indarkeria eta adinez txikikoak	41

Minusbaliotasunen bat duten pertsonak	25
Ikastetxeetako jantokiko begiralea	104
Arrisku handiko elikagaien sukaldeko manipulatzailea	419
Biktima anitzeko ezbeharrak	129
Uretako sorospena	184
Hondartzetako modulua	202
Lehen sorospenak	1.301
Ibilgailuetatik irten ezinik daudenak mugitzeko ibilgetzeko teknikak	38
Bihotz-biriketako bizkortzea	796
Oinarrizko bizitza euskarria eta DEA	891
Pediatria larrialdiak	12
Erretako pazientea artatzea	18
Laguntza psikologikoa	34
GUZTIRA	4.293

KANPOKO ESKAINTZAREN ANALISIA, MULTZOKATURIK

Osasun eskaintza	635
Gizarte eskaintza	997
GUZTIRA	1.632



■ Osasun eskaintza
■ Social

GIZARATERATZE ETA LANERATZE SAILAREN ANALISIA - ENPLEGUA

EKINTZA	IKASLE KOPURUA
Informazio-saioak	551
Enplegua bilatzeko tailerrak	61
Oinarrizko informatika eta Internet	60
Gaitasun pertsonalak eta sozialak	36
Berezoarenganako arreta	27
Gaitasun sozialak enplegua bilatzean	21
Gizarte erakundeen menpeko pertsonen gizarte eta osasun arreta	17
Garbiketa	16
Pisuetako zerbitzaria	12
Igeltserotza	2
Azalaren eta eraikin nahiz lokaletako altzarien garbiketa	2
Merkataritzako jarduera osagarriak	1
Arrandegi laguntzailea – Kutxazaina – Birjartzailea	1
Menpeko pertsonen arreta eta zainketarako gaikuntza	1
Komunitateari zerbitzuak eta zerbitzu pertsonalak	1





LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROA

Gurutze Gorriko Lanbide Heziketako Eskolak ibilbide luzea dauka gizarte eta osasun irakaskuntzan eta emaitza ezin hobekak lortzen segitzen du, bai prestakuntza kalitateari dagokionez bai giza kalitateari dagokionez. 5.000 ikasle baino gehiago iragan dira Eusko Jaurlaritzak homologatutako zentro horretatik, izan ere, laguntza handia eman izan digu beti.

- **Osasun Laguntzaile Boluntarioen Eskola.**
- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak:** Erizaintza eta gizarte eta osasun arretarako laguntzailea.
- **Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak:** Dietetika, Anlisi Klinikoko Laborategia eta Gizarteratzea.

INGURUMEN PLANA

2012an, nagusien eta gazteen kolektiboetara zuzenduriko hiru ingurumen proiektu garatu dira. Hain zuzen ere, garatutako hiru proiektuak honako hauek izan dira:

Ibaian barrena mugituz, Bizkaian

Ibaian barrena mugituz izeneko proiektuak herritarren mobilizazio estrategiak konbinatzea du helburu, erakundeen esperientziaren laguntzarekin, ekintzarako boluntarioritza erakarri, prestatu eta kudeatzeko, eta Ibaiak Lehengoratzeko plan nazionalaren irizpideak baliatuz. Gure helburu nagusietako bat da nagusien eta gazteen partaidetza soziala sustatzea, ingurumena kontserbatzarekin eta hobetzarekin erlazionatutako jardueretan.

Jarduketa arro hidrografikoak:

- Nerbioi ibaia.
- Aguera ibaia.
- Kadagua ibaia.

Gauzatu diren jarduerak hurrengoak izan dira:

- Boluntarioen prestakuntza ingurumenaren esparruan. 2012. urteak "Energia Berriztagarriak" izan ditu ardatz.
- Uren analitikak.
- Jarduera osagarriak: Mendi-ibilietarako ibilbideak; Bisita gidatuak; Hondakinak birziklatzeko jarduerak, ibaien erreka-ostean (hondakinen birziklapena); Basoberritzea; Ibai-ingurua aprobetxatzea, aisialdirako espazio gisa (herri-bazkariak, batzarrak atari zabalean...).
- Informazio eta Sentsibilizazio jarduerak: ingurumen saioak; ingurumen sentsibilizazioari buruzko triptikoa gauzatu eta hedatzea; boluntarioritzaren bitartez ibaien narriadura prebenitzeko eta erreka-ostak hobetzeko aholkuak jasotzen ditu.



Ingurumen sentsibilizazioa

Beste urte batez, Gurutze Gorriak ingurumenaren sentsibilizaziorako jarduerak gauzatu ditu, kanpaina ezberdinen bitartez:

2012ko Uraren Nazioarteko Eguna eta 2012ko Birziklapenaren Nazioarteko Eguna:

Egun hauetan parte hartzearen helburuetako bat da biztanleak kontzientziaraztea norberak duen eta kolektibo gisa dugun erantzukizunari buruz, hain zuzen, baliabide naturalak aurreztu eta kontserbatzeko eta aldaketa klimatikoa etete aldera. Horretako, bada, baliabide hidrikoak arreta handiz erabili eta kudeatu behar dira, planetako hainbat lekutan gertatzen ari diren lehorte eta desertifikazioei erreparatu, sortzen ditugun hondakinek eragiten dituzten arazoak kontrolatu, etab.

Urte honetan gauzatu diren jarduerak hurrengoak izan dira:

- **Ingurumen tailerrak pertsona nagusiekin.**

Aurten 10 ingurumen-tailer egin dira nagusien kolektiboarekin, baita etxeko ur kontsumo arduratsuari buruzko eta hondakinen birziklapenari buruzko beste bat ere. Halaber, uraren kontsumoa murrizteko garrantziaren gaineko eztabaida egin da.



- **Eskulan tailerrak, produktu birziklatuekin.**

4 eskulan tailer egin dira produktu birziklatuekin. Tailer horien ostean, bertan egindako eskulanak erakusgai egon dira Gurutze Gorriko lokaletan, Nagusi bezalako ekitaldietan, kalean bertan egindako ekitaldietan...



- **Birziklatze tailerrak umeekin.** Gurutze Gorriko Gazteriak bat egin du aurten ekimen honekin eta hondakinak birziklatzeari buruzko tailerrak egin ditu umeekin.

- **Informazio karpa, kalean bertan.** Ekitaldi bi antolatu dira kalean bertan: batetik, Uraren Nazioarteko Eguna (martxoak 22) eta, bestetik, Birziklapenaren Nazioarteko Eguna. Azken ekitaldi horretan, ingurumenarekin zerikusia duten hainbat gairen gainean informatu zaie herritarrei, hala nola, birziklapena, ur kontsumo arduratsua, etab. Halaber, gai honen inguruan hainbat jarduera egin dira umeekin. Ekitaldi honetan triptikoak, ur egurasbideak, eskumuturreko identifikatzaileak, etab. banatu dira.



- **Ur erakusketa eta kutxa.** Hainbat ekitalditan aurkeztu da "Uretan barrena mugituz" erakusketa eta "Uraren Kutxa" izeneko material didaktikoa baliatu da.

GURUTZE GORRIKO GAZTERIA



Gurutze Gorriko Gazteriak aisialdia eta denbora librea lantzea du helburutzat, betiere, heziketa-ikuspuntu batetik.

- **Osasun hezkuntza:** hezkuntza afektibo-sexuala eta emozionala, bide-hezkuntza, istripuen prebentzioa eta lehen sorospenak, GIBaren prebentzioa eta sexu-transmisio bidezko gaixotasunak, drogen kontsumoaren prebentzioa eta murrizketa, elikadura ohitura osasungarriak sustatzea.
- **Hezkuntza bateratua eta genero ikuspegia:** hezkuntza ez sexita, eta genero indarkeriaren gaineko sentsibilizazioa eta prebentzioa. Berdintasuna.



Proiektuak:

- **Giza Eskubideei eta Haurren Eskubideei** buruzko hezkuntza, Kulturarteko Hezkuntza.
- **Garapenerako eta Bakerako** hezkuntza. Gatazken ebazpena.
- **Ingurumen eta iraunkortasun hezkuntza:** kontsumo arduratsua, informazioa eta sentsibilizazioa: irteerak ingurumenera, zainketak, ezagutzak, birziklapenak...

ZER EGITEN DUGU?

- **Indarkeriazko jarrerak prebenitzea nerabe eta gazteengan:** berdintasun dinamikak, enpatia, gizarte gaitasunak...
- **Nazioarteko Lankidetzari eta Haurtzaroaren Eskubideei buruzko sentsibilizazioa,** Kulturarteko Hezkuntza. Kooperazio dinamikak, beste kultur eta herri batzuen ezagutzak, tradizioak... Esku-hartzea bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikastetxeetan.
- **Aisialdia eta denbora libre, haur eta gazteen partaidetza** umeen aisialdian, hezkuntza ikuspuntu batetik.

2010an hainbat proiektu garatu dira Gurutze Gorriko Gazteria sailetik; besteak beste, hurrengo hauek dira azpimarragarriak:

1. CIBERCAIXAS proiektua Gurutzetako Ospitalean eta Basurtuko Ospitalean

Caixa eta Espainiako Gurutze Gorriaren artean dagoen hitzarmenaren arabera, Bizkaiko GGGak CiberCaixas programa gauzatu du, bai Gurutzeko Ospitalean bai Basurtuko Ospitalean. Esku-hartzea larunbat eta igandeetan egiten da, goizeko 10:00etatik 13:00etara (GGGak kudeatuta), eta ostegun eta ostiraletan, 16:00etatik 19:30era (ospitalearen lana bultzatuz). Geletan laguntzen duten boluntarioez gainera, hiru neskek praktikaldia egin dute: bi Deustuko Unibertsitatekoak eta beste bat Aisialdiko ikastarokoa.

2. Ospitaleratutako haurrak Gurutzetako Ospitalean eta Basurtuko Ospitalean

Cibercaixas proiektuarekin legez, aldi berean, Ospitaleratutako Haurren proiektua gauzatzen da. Boluntarioak geletatik iragaten dira umeak Ciberrean parte hartu dezaten animatzera, eta, umea Ciberrera joateko baldintza fisikorik ez duenean, boluntarioak jardueraren bat edo beste egiten du gelan. Gurutzetako Ospitalean, batez beste, 200 erabiltzaile ditugu hilean eta Basurtuko Ospitalean, aldiz, asteburuetak datuak baino ez ditugu, baina pazienteen kopurua aintzat hartuz gero, balantzea ere positiboa da: batez beste, 50 erabiltzaile hilean.

NAZIOARTEKO LANKIDETZA



3. Eskola arrakasta

"Orain inoiz baino gehiago" deialdiaren barruan, adinez txikikoen eskolatzeko gaitasunak edo baldintzak hobetzera zuzenduriko programa hau lantzen dugu, Enkarterrietako eta Nerbioi Ibaiko Tokiko Batzarretan, eta, aldi berean, Bilboko Juan Delmas ikastetxean dagoen batzar probintzian ere bai. Ordu eta erdiko saio bi egiten dira astean talde bakoitzarekin.

PROIEKTUA

Gipuzkoako eta Arabako batzarrekin batera finantzaturako proiektua:

- **Burundi:** Makamba eta Mabandan (Burundi) baliabide natural komunen kudeaketa hobetzeko proiektua: 981,03€.
- **Tanzania:** Tanzaniako errepublikan dauden Kongoko errefuxiatuentzako giza-laguntzarako proiektua: 130.000€.
- **Togo:** Togon haurren esplotazioaren eta trafikoaren kontrako eskualdeko proiektua: 8.552,25€.
- **Espainia:** Sentsibilizazio eta kudeaketa proiektua. 21.466,65€.
- **Estatutu kuotak:** 53.666,64€.



BESTE PROIEKTU BATZUK

BOLUNTARIOTZA, PARTAIDETZA ETA TOKIKO GARAPENA

Bizkaiko Gurutze Gorriko 53 boluntarioren partaidetza, **2012ko Nazioarteko Lankidetzaren Asturiasko Printzea Sariaren** banaketa-ekitaldian.



Sari hau Gurutze Gorriko eta Ilargi Erdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduari entregatu zitzaion urriaren 26an, Oviedon, hain zuen ere, gure Erakundea "giza sufrimendua ekidin, bizitza eta osasuna babestu eta pertsonen duintasuna errespetarazteko helburua duen munduko giza-sare handiena delako, batez ere, gatazka armatuko garaietan eta krisi eta behar egoeretan".

Gurutze Gorriko 1.400 boluntario bildu ziren Oviedoko kaleetan, estatu osotik etorriak eta esparru ezberdinetan boluntariotza-lana egiten dutenak: Nazioarteko Lankidetzeta, Sorospenak eta Larrialdiak, Esku-hartze Soziala, Gurutze Gorria Gazteria, Ingurumena, etab.

ZER EGITEN DUGU?

Bizkaiko Gurutze Gorriko Boluntariotzari Omenaldia, 2012ko abenduaren 1ean.

Abenduaren 1ean, Bizkaiko Gurutze Gorriko boluntarioei eta langileei omenaldia egin zitzaion BECen, eta 500 pertsona baino gehiago bildu ziren.



Garatutako jardueren artean, besteak beste, hurrengoak dira aipagarriak:

- Barneko aintzatespenak: boluntario eta langileei.
- Kanpoko aintzatespenak: egunik egun Bizkaiko Gurutze Gorriari laguntzen dioten erakundeak.
- "Hobekuntza etengabea erakundean" izeneko hitzaldia.
- Magia.
- Sorpresak eta opariak.
- Etab.



Gurutze Gorriak urrian **Adinekoentzako Aisialdi, Zerbitzu eta Jardueren (NAGUSI) 16. Azokan** parte hartu zuen, BECen. Azoka honetan hainbat informazio-jarduera egiten da eta baliabideen, azoka barruan gure laguntza behar duten pertsona nagusiei eskaintzen zaien laguntzaren, prestakuntzaren (nagusiei zuzenduriko lehen sorospenak eta ohean dauden pazienteak mugitzea) eta tailerren (sakelako telefonoa maneiatzea eta birziklatutako produktuekin eskulan tailerra) gainean informatzen da. Standean Urari buruzko erakusketa egon zen, eta nagusiekin erabiltzen den Gurutze Gorriko egokitutako ibilgailua eta laguntza-produktu ezberdinak ere egon ziren ikusgai (gurpil-aulkiak, eskorgak...). 2012. Urtean, Bizkaiko Gurutze Gorriko Abesbatzak standaren alboko eszenatokian emanaldia eskaini du.



BOLUNTARIOTZA, LANGILEAK, PARTAIDETZA ETA TOKIKO GARAPENA

Gure funtsezko printzipioetako bat, eta Gurutze Gorriaren izaera argi eta garbi identifikatzen duena, boluntariotza da. Horrenbestez, herritarren partaidetza eta boluntariotza aktibo, gaitu eta konprometitu baten eraldaketa soziala ahalbidetzen duen zimendu eta oinarrietako bat da; hori guztiori Gizateriaren Boterearekin lortzen da, hain zuzen, boluntariotzaren bitartez "sare solidarioak" sustatzen zertzen dena. Herri, hiri, eskualde nahiz auzo bakoitzeko herritarrak dira, Bizkaiko Gurutze Gorrian boluntario gisa egindako posturarekin, zaurgarrienen alde eta zaurgarriengatik lan egiteko konpromisoa hartzen dutenak, "giza duintasuna" defendatuz. Konpromiso horri esker, gure Erakundeak hainbat ekimen eta zerbitzu gara ditzake, eta gure Lurralde Historikoko herri nahiz eskualde ezberdinetako pertsoneri heltzea ahalbidetzen du.

Proiektuak: boluntarioak erakartzeko proiektuak, sentsibilizazio, bat-egite eta jarraipen proiektuak eta koordinazio nahiz partaidetza proiektuak.

BOLUNTARIOAK BIZKAIAN		8.397	
Gizonezkoak	4.676	%55,69	
Emakumezkoak	3.721	%44,31	

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Boluntario aktiboak	1.448	1.321	2.769
Noizbehinkako boluntarioak	3.231	2.397	5.628


NORK EGITEN DU?



■ Noizbehinkako boluntarioak
■ Boluntario aktiboak


	Gizona	Emakumea	Guztira
Jasotako eskariak	375	539	914
Altak	227	313	540
Bat-egite ratioa	%60,53	%58,07	%59,08

	Gizona	Emakumea	2012	%
14 urte baino txikiagoak	52	74	126	%1,50
14 - 15 urte bitartekoak	16	20	36	%0,43
16 - 20 urte bitartekoak	136	227	363	%4,32
21 - 30 urte bitartekoak	900	1.524	2.424	%28,87
31 - 40 urte bitartekoak	2.537	1.059	3.596	%42,82
41 - 50 urte bitartekoak	687	285	972	%11,58
51 - 60 urte bitartekoak	155	200	355	%4,23
61 - 65 urte bitartekoak	42	68	110	%1,31
65 urte baino gehiagokoak	151	264	415	%4,94
GUZTIRA	4.676	3.721	8.397	%100



LANGILEAK, PARTAIDETZA ETA TOKIKO GARAPENA

2012ko LANGILEAK	Gizonak	Emakumeak	Guztira
2012an langile izan diren pertsona kopurua, guztira (hondartzak kontuan hartu barik)	88	75	163
2012an langile izan diren pertsona kopurua, guztira (hondartzak barne)	141	79	220
GUZTIRA	229	154	383




2012an langile izan diren pertsona kopurua, guztira (hondartzak kontuan hartu barik)

2012an langile izan diren pertsona kopurua, guztira (hondartzak barne)

GUZTIRA

2012an langile izan diren pertsona kopurua, guztira (hondartzak kontuan hartu barik) eta plan bakoitzeko



	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Sorospenak eta larrialdiak	66	24	90
Esku-hartze soziala	14	28	42
Boluntariotza		1	1
Prestakuntza		2	2
Lanbide Heziketa	6	10	16
Administrazioa eta Kudeaketa	2	9	11
G.G. Gazteria		1	1
GUZTIRA	88	75	163



NORK EGITEN DU?

2012an langile izan diren pertsona kopurua, guztira (hondartzak kontuan hartu barik) eta Batzarreko


	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Bermeo	9	1	10
Durango	3	3	6
Gernika	7	1	8
Enkarterriak	9	4	13
Lea Artibai	8	4	12
Mungia	7	2	9
Uribealdea	11	5	16
Nerbioi ibarra	8	4	12
Ezkerraldea	9	5	14
Bilbao	4	20	24
Probintzia Bulegoa	13	26	39
GUZTIRA	88	75	163



BALIBIDEAK

NOLA EGITEN DUGU?

Anbulantziak		29
	Anbulantziak OBE (Oinarrizko Bizitza Euskarria)	19
	Anbulantziak BEA (Bizitza Euskarri Aurreratua)	10
ERIE kamioia. Biktimen Sailkapena		1
Atoiak		2
	ERIE atoa. Biktimen Sailkapena	1
	Osasun Postu Aurreraturako atoa	1
Autoak		2
	Eragiketa buruaren ibilgailua	1
	Hurbiltasun ibilgailua	1
Egokitutako Ibilgailua		13
Osasun Postu Aurreratuko ibilgailu eta ekipoak		10
Larrialdietarako eta giza-laguntzarako furgoi mistoak		6
4 x 4 ibilgailuak		9
	4 x 4 ibilgailuak - Anbulantzia	1
	4 x 4 ibilgailuak – Mendiko taldeak	4
	Itsas salbamendurako eta Hondartzetako salbamendurako 4 x 4 ibilgailua	4
Ontziak		18
	AB maila	2
	B maila	5
	C maila aurreratua	7
	C maila	4
Erreskaterako uretako motorrak		8
Erreskaterako quad-ak		7
		105



HURBILTASUN METODOLOGIA

Tokiko hurbiltasunak tokiko inguruko zaurgarritasun mailarik altuena duten pertsonen oinarritzko gizarte arreta eskaini eta gizarte arrisku nahiz bazterkeria faktoreak prebenitu eta gutxitzeko beharrezkoak diren gizarte baliabideak eskurarazi eta ahalbidetzeko beharrezkoa den informazioa ematea du helburutzat. Tresna honen bitartez, Gurutze Gorriak segimendu hurbilagoa egin diezaieke pertsona zaurgarrienei, haiek lagundu eta, modu horretan, boluntario baten laguntza behar duten egoerak antzemateko.

HARTZAILEAK

- **Pertsona nagusiak:** batez ere, bakarrik bizi direnak edota gizarte laguntza eskas dutenak.
- **Menpeko pertsonak edo gaixotasunen bat dutenak** eta denbora luzaz euren etxean egon behar dutenak.
- **Etorkinak.**
- **Langabezia dauden pertsonak.**
- **Hautzaroa.**

JARDUERAK

Irteera-deiak

- **Jarraipen agendak:** telefono bidezko jarraipena arriskuan dauden erabiltzaileei, batez ere, euren zaurgarritasun-egoera dela-eta arreta berezia behar dutenak.
- **Kanpainak:** 2012an gripearen kontrako Txertatze Kanpaina egin da.

Noizbehinkako laguntzak

Dei hauen bitartez, erabiltzaileari zenbait atazetan laguntzeko egoerak antzematen dira, hala nola, medikuarenera joatea, kudeaketak egitera laguntzea, bere komunitateko jarduerak egitera edota izapide administratibo nahiz burokratikoak egitera laguntzea, arrazoi ezberdinak direla-eta, bakarrik egin ezin dituelako.

ORAIN INOIZ BAINO + DEIALDIA

ZAURGARRITASUN EGOERA LARRIAN DAUDEN PERTSONAK ARTATZEKO LAGUNTZA-DEIALDIA

Hartzaileak

Zaurgarritasun egoera larrian dauden pertsonak batez ere:

- Etxerik gabeko pertsonak.
- Zaurgarritasun egoera larrian dauden familiak.
- Familia erantzukizun/zama duten pertsona nagusiak.
- Denbora luzez langabezia dauden langabetuak.
- Langabezia dauden gazteak.

Programak

Eskola laguntzarako programak:

- Eskola laguntzarako tailerrak.
- Aisialdi eta denbora libreko jarduerak.
- Elikadura osagarria adinez txikikoentzat (askaltzeko espazioa).
- Eskola materialaren banaketa.

Laguntza-sorta banaketa, familia eta pertsona nagusientzat:

- Material higieniko pertsonalerako eta etxerako sorten banaketa.
- Pixoihalak eta jaioberrientzako elikagai sorten banaketa.

Etxerik gabeko pertsonen zuzenduriko arreta programa:

- Material banaketa (higienikoa, lo-zakuak, zerriak, motxilak...).
- Larrialdi jarduerak, hotz-boladak egoten direnean (edari beroen banaketa, hotzerako arropa, lo-zakuak, etab.).

KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

Bizkaiko Gurutze Gorriko Jarduerak – Enplegu eta Prestakuntza Plana

Enplegu plana:

- Gazteak laneratzeko bideak (orientazioa, prestakuntza eta lan bitartekaritza).
- Laneko Informazio Puntuak (LIP) Garatzea y Enplegua Modu Aktiboan Bilatzeko Espazioak (EABE) Bilbon.
- Lana arretiko jarduerak gauzatzea (teknologia berriak baliatzea, gaztelaniazko eskolak...).

Lanbide Heziketa - Gaikuntza:

- Lanbide baten gaikuntzarako doako ikastaroak eskaintzea (elikagaien manipulatzaila, pertsona nagusiei arreta...).



Gure eskerrik beroena eman nahi diegu "Orain inoiz baino +" deialdian lagundu duten hedabide guztiei.

Bizkaiko Gurutze Gorriak informazio zehatza eta gardena oinarritzat duen komunikazio politika baten aldeko postura egiten du, betiere, erakundearen balioekin bat eginez. Bizkaiko Gurutze Gorriko jarduera ezagutzera emateko, berezko hainbat bide baliatzen dira, hala nola, www.cruzroja.es/bizkaia webgunea eta Facebook nahiz Twitter sare sozialetako profilak.

Era berean, lotura estua dauka hedabideekin eta eurekin egiten diren komunikazio ofizialak beti egiten dira ele bietan. 2012an, 130 informazio agertu dira prentsan: 63 sarean, 91 irratiko esku-hartzeetan, 34 telebistan eta 10 iragaki; guztira, 328 zirrara. 43 prentsa ohar eta 7 agenda bidali dira, eta, guztira, 9 prentsaurreko gauzatu dira: neguko kitari buruzko datuen balantzea; Bilboko Portu Agintaritzan, kanpaina-ospitalea aurkezteko; Cima Martínez familiari egindako sorpresa, bazkide izateagatik; Urrezko Zozketa; 2011ko jarduera-txostena; "Uda honetan maite ezazu zure burua" kanpaina; "Orain inoiz baino +" deialdia hedabideei aurkezteko; Banderatxoaren eguna; Bilbao Dendak elkartearekin sinatutako hitzarmena eta neguko kita aurkezteko.

Aurton, halaber, "Eman minutu bat eta bizitza bat aldatuko dugu" kanpaina gauzatu da, eta Publfestivalek saritu du, publizitate sozialeko grafikarik onenaren saria eskuratuz.



Jarraitu Twitterren:

[@cruzrojabizkaia](http://twitter.com/cruzrojabizkaia)

Eta Facebooken:



<http://www.facebook.com/pages/Cruz-Roja-Bizkaia/372099246144566>

BAZKIDEAK

NOLA FINANTZATZEN DA?

BAZKIDE KOPURUA BIZKAIKO GURUTZE GORRIAN

URTEA	BAZKIDE KOPURUA
2002	9.754
2003	10.518
2004	10.834
2005	11.424
2006	12.594
2007	14.196
2008	15.272
2009	16.875
2010	17.222
2011	17.800
2012	18.702



■ Banakako bazkideak: 18.090
%97

■ Enpresak: 612
%3




	2012	2011
Banakako bazkideak	18.090	17.147
• Gizonak	7.590	
• Emakumeak	10.500	
Enpresak	612	653
GUZTIRA	18.702	17.800

KUDEAKETA EKONOMIKOA

BIZKAIKO GURUTZE GORRIA ZIFRATAN

JARDUERAREN ARABERAKO GASTUAK

	2012	%
Gurutze Gorria Gazteria	47.714	%0
Boluntariotza, Prestakuntza eta Aisialdi Eskola	438.290	%4
Esku-hartze soziala	1.690.808	%16
Sorospenak eta Larrialdiak	5.654.947	%52
Lanbide Heziketako zentroa	1.085.094	%10
Kudeaketa eta Administrazioa	943.957	%9
Beste batzuk (Nazioarteko Lankidetzeta, Solidaritate Fondoa eta Fondoan Sustapena eta Komunikazioa)	1.008.277	%9
GUZTIRA	10.869.087	%100



- Gurutze Gorria Gazteria: %0
- Boluntariotza, Prestakuntza eta Aisialdi Eskola: %4
- Esku-hartze soziala: %16
- Sorospenak eta Larrialdiak: %52
- Lanbide Heziketako zentroa: %10
- Kudeaketa eta Administrazioa: %9
- Beste batzuk: %9

FINANTZAZIO ITURRIAK


	2012	%
Zerbitzuen prestazioa	6.783.738	%59
Fondoak erakartzea	2.084.344	%18
Diru-laguntzak eta dohaintza pribatuak	2.049.917	%18
Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	28.852	%1
Finantzarioak	270.691	% 2
Diru-laguntzen sarrerak, kapitalean eta bestelakoetan	197.549	% 2
GUZTIRA	11.415.091	% 100

SOBERAKINA


546.004

2012ko INBERTSIOAK

IBILGAILUAK	2012	%
7 anbulantzia	333.204	%67
Egokitutako ibilgailua	46.749	%9
4 x 4 ibilgailua	23.710	%5
Bulego probintzialeko ibilgailuak	29.965	%6
Ontzi motordunak	32.119	%6
Uretako motorrak eta plataforma	12.143	%2
Ontzia	8.235	%2
Osagarriak (plataformak, ontzi pneumatikoak, etab.)	9.837	%2
GUZTIRA	495.962	%100
BESTE INBERTSIO BATZUK	2012	%
Bulego probintzialeko lokalak	501.681	%39,48
Eraikuntzak eta instalazioak	336.713	%25,48
Ekipo informatikoak	72.860	%5,51
Altzariak eta bulegoko ekipoak	75.348	%5,70
Mediku lanabesak eta ekipoak	199.215	%15,07
Beste ibilgetu material batzuk	109.926	%8,32
Aplikazio informatikoak	5.754	%0,44
GUZTIRA	1.321.497	%100
2012ko KAPITALEKO DIRU-LAGUNTZEKIN FINANTZATUTAKO IBILGETUA	2012	%
Ekipo informatikoak eta laborategia – E.J.	20.747	%38
Egokitutako ibilgailuak – BBK	25.000	%46
EVE anbulantziak	8.400	%16
GUZTIRA	54.147	%100



FONDOAK ERAKARTZEA	2012	%
Urrezko zozketa	596.191	%29
Bazkideak	1.404.563	%67
Diru-biltzeak	60.757	%3
Beste batzuk	22.833	%1
GUZTIRA	2.084.344	%100




JARDUERA DATUAK

BIZKAIKO GURUTZE GORRIA ZIFRATAN

2012ko PARTAIDEAK ETA ZERBITZUAK, GUZTIRA		
	Erabiltzaile partaideak	Zerbitzuak
Esku-hartze soziala	29.292	193.298
· Pertsona nagusiak	10.587	97.641
· Hurbiltasun metodologia baliatuta artatutako pertsonak	999	999
· Arreta soziala etorkinei	10.988	36.934
· Enplegua	776	9.604
· Errefuxiatuak	400	3.880
· Minusbaliotasunen bat duten pertsonak	260	15.433
· Haurtzaroa eta Familia	1.472	3.238
· Gabonetako jostailuen kanpaina	478	1.530
· Komunitatearen aldeko lanak	40	1.921
· Osasunaren eta Inguruaren Prebentziorako eta Zaintzarako agentea (Basauriko Presondegia)	12	57
· Zaurgarritasun egoeran daudenei laguntza soziala eta Orain inoiz baino gehiago deialdia (eskolako materiala banatzea, hotzerako arropa, lo-zakuak, higie-ne kitak, laguntzak eta segimenduak)	3.176	16.882
· Ospitaleratutako gaixoei bisitak (San Juan de Dios ospitalea - Santurtzi)	4	521
· Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako larrialdi-etxea	16	38
· Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telelaguntza mugikorra	84	4.620
Ingurumena	6.336	50
Boluntariotza eta partaidetza	8.397	
Prestakuntza	6.172	414
Lanbide Heziketako zentroa	327	14
Gurutze Gorria Gazteria	6.157	5.664
Sorospenak eta Larrialdiak	25.174	25.668
· Larrialdietan berehala erantzuteko ekipoa (LBEE)	53	28
· Prebentiboak	1.056	1.429
· Hondartzen estaldura	8.257	8.195
· Gizarte eta osasun garraioa	15.776	15.455
· Itsas salbamendua	32	561
Osasun plana	120	173
GUZTIRA	81.396	225.223
KANPAINAK	157.563	9
Zuri dagokizu, guri dagokigu	157.563	5
Ingurumen Sentsibilizazioari buruzko kanpainak (Nagusi, Uraren Nazioarteko Eguna eta Birziklapenaren Nazioarteko Eguna, Ate Irekien Jardunaldia –Basauri-)		4
BIZKAIKO GURUTZE GORRIAREN ERAGINA, GUZTIRA	239.538	225.290



ARTATUTAKO BIZTANLEAK	2009	2010	2011	2012
Esku-hartze soziala	15.091	18.541	27.199	29.292
Boluntarioria eta Partaidetza	6.929	7.465	7.949	8.397
Prestakuntza	5.111	5.566	6.225	6.172
Ingurumena	9.673	8.681	7.141	6.336
Lanbide Heziketako zentroa	291	304	318	327
Gurutze Gorria Bizkaia	3.350	3.365	3.065	6.157
Osasun plana (sexu-transmisio bidezko gaixotasunak)			383	120
Sorospenak eta Larrialdiak	28.620	26.947	26.205	25.174
GUZTIRA	69.065	70.869	78.485	81.975

■ 2010 ■ 2011 ■ 2012




BIZKAIKO GURUTZE GORRIA ZIFRATAN

ERABILTAILEAK URTE BAKOITZEKO							
2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
41.530	49.218	52.959	50.643	69.065	70.869	78.485	81.975



ARRETA PLANAREN ARABERA - 2012

Esku-hartze soziala	29.292
Boluntariotza eta partaidetza	8.397
Prestakuntza	6.172
Ingurumena	6.336
Lanbide Heziketako zentroa	327
Gurutze Gorria Gazteria	6.157
Osasun Plana	120
Sorospenak eta Larrialdiak	25.174
GUZTIRA	81.975



- Esku-hartze soziala
- Boluntariotza eta partaidetza
- Prestakuntza
- Ingurumena
- Lanbide Heziketako zentroa
- Gurutze Gorria Gazteria
- Osasun Plana
- Sorospenak eta Larrialdiak

KALITATE ETA INGURUMEN ZIURTAGIRIAK

Hordartzetako sorospen eta salbamendu zerbitzurako une-en ISO 9001:2008 kalitate-sistema eta ingurumenaren UNE-en ISO 14001:2004 ziurtagiria.



GKE Benchmarking kudeaketaren gardentasunagatiko ziurtagiria:

- **9 alderdi** aztertzen dira: Zuzendaritza Batzordea, Esparru Estrategikoa, Gerentziaren Zintzotasuna, Komunikazioa eta Irudi Publikoa, Giza Baliabideak, Finantza-gerentzia eta Funtsen Kudeaketa, Eragiketak, Emaizak eta Etengabeko Hobekuntza).

KALITATE ETA INGURUMEN ZIURTAGIRIAK



AENOR kalitate-ziurtagiriak:

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telelaguntza mugikorra.
- Heziketa.



Ezarririkako beste kalitate-sistema batzuk:

- Borondatezko lanaren kudeaketa.
- Interlabora Sarea, etorkinentzako enplegua.



2012
MEMORIA
CRUZ ROJA BIZKAIA

Cada vez más cerca de las personas



Bizkaiko Gurutze Gorria
Cruz Roja Bizkaia

LA MISIÓN

“Estar cada vez más cerca de las personas vulnerables en los ámbitos nacional e internacional a través de acciones de carácter preventivo, asistencial, rehabilitador y de desarrollo, realizadas esencialmente por voluntariado”.

LA VISIÓN

“Cruz Roja, como organización humanitaria y de acción voluntaria arraigada en la sociedad, dará respuestas integrales desde una perspectiva de desarrollo a las víctimas de desastres y emergencias, a problemas sociales, de salud y medioambientales”.

11 Asambleas Comarcales Locales: Valle del Nervión (944 263 730), Margen Izquierda (944 936 560), Durangaldea (946 309 323), Mungia (946 741 226), Encartaciones (946 670 584 - 946 107 008), Valle de Arratia (946 736 262), Uribe-Aldea (944 609 295 - 944 642 215), Bermeo (946 883 616), Lea Artibai (946 831 929), Gernika (946 251 988) y Bilbao (944 103 984 - 944 163 183).





Javier Zarraga Castro
Presidente Provincial



Bizkaiko Gurutze Gorria
Cruz Roja Bizkaia

Estimados amigos y amigas,

Un año más queremos acercarnos a vosotros a través del presente informe que pretende recoger un año de trabajo de todas las personas que forman y participan en esta Institución en Bizkaia.

